

DBH 1- DBH 2rekin lansarien parekatzea: Borrokan jarraitzen dugu

Gogoratuko duzunez, STEILASek DBH 1 eta DBH 2. parekatzeko kanpaina burutu zuen joan den ikasturtean zehar. Gure ikastetxeetan bigarren hezkuntzan, irakasleok titulazio berbera eta lan berdinarekin ez dute berdin kobratzen kasu batzutan. Gaur egunean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (bi ikasturtetan) irakasle baten urteko lansaria, DBH 2. zikloan, batxilergoan edo Formakuntza Zikloetan aritzen denarena baino bajuagoa da, biak lizentziatuak edo gradudunak badira ere. Zehazkiago, une honetan urtean 3.170 eurokoa da diferentzia hau (226 hilean). Bereizketa **Ekiparazio Akordioa** sinatu zenetik (1992) gertatzen da eta itundutako irakaskuntza osoan (Gizarte Ekimeneko esparruan eta ikastoletan) du eragina.

Gure kanpainak ardatz ezberdin zituen. Informazioa zabaltzeaz gain (triptikoak, kartelak...) zabalik dugun sinadura bilketa bat bultzatu genuen ([Sinatu ez baduzu hemen egin dezakezu oraindik](#)). Ikasturtea amaitu baino lehen sinadura horiek Hezkuntza Sailera helarazi nahi diogu. Gainera, sindikatuen artean adostutako plataforman puntu hau sartzea ere lortu genuen, negoziazio kolektiboko gaia izan behar delakoan baikaude. Azkenik ekimen judizialari ekitea ere erabaki genuen, gure ustez -DBH 1 kategoriari dagokionez, gutxienez- Administrazioak ez duelako betetzen 1992an itundutako irakaskuntzaren esparruan sindikatuarekin eta patronalekin sinatutako *Lansarien Ekiparazio Akordioa*. Akordio horren arabera langile hauek irakaskuntza publikan arlo berean aritzen direnen %95 irabazi beharko lukete; hau da, kobratzen dutena baino 2.302 € gehiago.

2017ko otsailaren 16an STEILASek idazki bat aurkeztu zion Administrazioa eta Zerbitzuen Sailburuordea den **Olatz Garamendiri** *Lansarien Ekiparaziorako Akordioa* bere osotasunean bete behar dela gogoratzeko. Idazki hartan nabarmentzen genuen 2016an DBHko lehen zikloan irakasleek egoera berean zeuden langile publikoek kobratzen dutenaren % 88,8 a baino ez zutela irabazten, aipatutako Akordioan %95 izan behar dela zehazten den bitartean.

Hilabeteak pasatu dira eta ez da inolako erantzunik jaso Hezkuntza Sailaren aldetik. Hori dela eta, joan den urriaren 10an Gorako Helegitea jarri zuten STEILAS sindikatuaren zerbitzu juridikoek. Administrazioak hiru hilabeteko epea izan zuen eskaera horri erantzuteko, baina erantzuteko ez du lanik hartu. Gure ustez, erantzun ez izana isiltasun positibotzat hartu daiteke eta, beraz, 2018ko otsailaren hasieran beste idazkia aurkeztu da isiltasunagatik aktoaren ejekuzioa eskatzeko eta ondorioz, Akordioa bere osotasunean betetzeko. Hori egingo balitz DBH 1eko irakasleek DBH 2. ziklokoekin parekatuko lirateke.

Administrazioak horri erantzugo ez balio (eta badirudi ez duela egingo) Administrazioarekiko auzi-prozesuaren bideari ekingo genioke hemendik hiru hilabetera. Egoera aztertzen joango gara, baina ez diogu ekin bide judizialari bukaeraraino ez iristeko.

www.steilas.eus